

AGURRA MARCELO USABIAGA GUDARIARI



Usabiaga, hil aurreko elkarriketa batean. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Kasik 99 urte zituela hil zen Marcelo Usabiaga mili-ziano eta gudaria joan den uztailean. Ordizian jaioa zen arren, Hernanin egin zuen bizimodua urte luzez. Bere azken egunetaraino jardun zuen bere azalean sufritutako gerra kontatzen, «gerrak ez duelako ezer onik ekartzen». Lau aldiz izan zen atxilotua eta 21 urte eman zituen preso kartzela desberdinetan. Hirutan zauritu zuten balaz, baina bizi osoa izan zuen injustiziak salatzeko.



Abenduaren 19an jantzi zuen Beñat Gaztelumendik Gipuzkoako txapela Illunben 7.200 bertsozaleren

PERIKO SOLABARRIA, NEKAEZINA

Ekainean hil zen Periko Solabarria, 85 urte zituela. Ezker abertzaleko kide historikoa eta militante nekaezina zen eta, osasunak baimendu zion neurrian, azkenera arte kalean hainbat protestatan ibili zen. Barakaldon bizi zen eta hainbat plataformarekin gogor lan egin zuen azkenera arte.



Militantzia eredu nabarmena izan da Solabarria. Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

HEMERETZI HILDAKO, AMIANTOZ

Amianto mineral kantzerigenoa enpresa eta etxebizitzetan erabili izan da (oraindik ere erabiltzen da zenbait tokitan), eta hiltzaile isila izaten ari da, batez ere hura arnastuz biriketa-ko minbizia sortzen duelako. Aurtengo urtea ere ez da samurra izan, azaroaren amaieran dagoeneko hemeretzi baitziren 2015ean amiantoaren eraginez hildakoak. Albiste baikorrena epaitegietatik etorri da; amiantoa zuen senarraren arropa garbitzearen ondorioz hildako emakumearen heriotza aitortu dutelako.



Amiantoaren aurkako protesta bat. GAUR8